

IPAR ETA EGOALDEKO EUSKALERRIAREN ARREMANAK

Orain, bizi molde guztiak berritzeko garaia etorri danean, gure ekonomia egoera sendotzeko ordua ere etorri da. Ekonomia sendotzeko eginbiderik onena arremanak gehitzea izaten da. Lehenbizi, arremanak ezoko eskualdeekin gehitu bear dira. Aldameneko lurraldeagaz arremanak estuzteko, lehenik ondo ezagutu bear da aldameneko lurraldea eta ezagutu ondoren, arremanak ugaldu behar dira, bildurik gabe.

Akitaniako eskualdea aipatu nahi dugu. Akitaniaren barranean arkitzen da Iparraldeko Euskalerra; hor bertan, Akitaniaren barranean, Pirinio Atlantiko izenagaz ezagutzen dana.

Emen eta gaur, Ipar eta Egoaldeko Euskalerrin artean arremanak auziteko eskatzen nator. Anaiak izan arren, izkuntza bat eta beraz, gure arremanak ez dira egoki egokiak.

Orraitio, iparraldean, gure anaiak, gure erantzunen zai daude. Denok dakigu oztopo aundirik badela arremnan oiek ugaltzeko, gure araien itzaropena betetzeko, behar duten erantzuna oiei emateko. Oztopoak politikaren arloan, mugaren aldetik, ohituren aldetik, etabar. Baina oztopoak aundiak izan arren, gogoia aundiagoa bada ondoreak berehala sumatuko dira.

Orain, Ipar eta egoaldeko zenbaki garrantzitsuenak parean ezarri ezker, onetariko laukia lortzen da ikus daitekeenez, Akitania guztioko zenbakiak jasotzen ditugu, konparabidetzat.



LURREN ZABALGUNA (km.²)			
Arabak	3.047	Pirinio Atlantikoak	7.629
Bizkaiak	2.217	Dordoñak	9.184
Gipuzkoak	1.997	Girondak	10.000
Nafarroak	10.421	Landak	9.237
		Lot eta Garonak	5.358
GUZTIRA	17.682	GUZTIRA	41.408
BIZILAGUNAK			
Arabak	220.000	Pirinio Atlantikoak	528.000
Bizkaiak	1.100.000	Dordoñak	367.000
Gipuzkoak	650.000	Girondak	1.044.000
Nafarroak	480.000	Landak	285.000
		Lot eta Garonak	293.000
GUZTIRA	2.492.000	GUZTIRA	2.500.000
GIZALODIERA (Biz. km.² bakoitzeko)			
Arabak	67	Pirinio Atlantikoak	68
Bizkaiak	500	Dordoñak	40
Gipuzkoak	320	Girondak	103
Nafarroak	47	Landak	30
		Lot eta Garonak	55
GUZTIRA	140	GUZTIRA	60
IRI AUDIENIAK			
Bilbao	400.000	Bordele	600.000
Donostia	170.000	Baiona	130.000
Iruñea	160.000	Pabe	120.000
Gasteiz	150.000	Agén	55.000
Barakaldo	125.000	Périgueux	42.000
Iruñ	50.000	Arcachon	40.000
Eibar	40.000	Mont-de-Marsan	30.000

S. LARREA

PALESTINARRAK HELBURUTIK HURBILAGO

Ekainaren Letik 9ra arte luzatu da Kairon palestinarren Biltzar Nagusia; eta, amaiztean, berriro ere Yasser Arafat izendatu dute O. L. P. delakoaren Buruzagitzaren buru.

XII. Biltzar hau ez omen da erraza izan. Tirabira gogorrak izan omen dira; eta, bestek beste, G. Habbache ez da bera Kairoa agertu, bere izenean Yamani igorri, Arafaten ingurua bildu dira, dena dela, palestinar organizaziorik pisuenak: Fath bera, noski; baina baita Saika, F. L. A., Habbache-ren F. F. L. P. delakoa, Hawatmeh-ren F. D. P. L. P., eta beren buruz ari diren beste talde txiki batzuk ere bai.

Datorren Irailean hasiko bide de Ginebran Palestinari buruzko Biltzar berria. Eta palestinarrek bat egin dute horri buruz, "politikabide bat ahobatez onartuz" (Y. Arafat).

Palestinarrak baldintza bakar bat jarri dute funtsean Ginebrako Elkarrizketan parte hartzeko: "Hertsiki eskatzen dugu, eta hertsiki eskatuko ere azaldu du Arafatek— palestinar herriaren nazio-estabideen errespetua eta obrakuntza".

Palestinarrak baldintza bakar bat jarri dute funtsean Ginebrako Elkarrizketan parte hartzeko: "Hertsiki eskatzen dugu, eta hertsiki eskatuko ere azaldu du Arafatek— palestinar herriaren nazio-estabideen errespetua eta obrakuntza".

1.—"Segurantziko-Kontseiluaren 242. Erabakia arbuatzen du O. L. P. honek, gure herriaren abertzale nazio-nahiarri ez-ikusia egiten baitio..."

2.—"Bere eskatzen dituen bururakide guztiak baliatuz, iskitu-burrutak barne, Palestinako lurraldea askatzen saiatzen da gataska OLP-a; baita askaturik gertatuko diren palestinar lurraldeetan (denetan edo zenbaitetan bakarrik, nola gerta) nazio-aginte askatua erakitzen..."

3.—"Etsaien onartzetik pasako litzatekeen edozein palestinar proiektu edo instituzio gaitzesten du OLP-ak... Ez dugu inolaz ere onartuko geure herriak bere etxera sartu eta bere buruz eta bere geroaz librok erabakitze duen kondaira-estabideen kontutan hartzen ez duen ezer..."

4.—"Askatasunerako bidean edozein laxabide gerta badadi ere, urrats bat baizik ez du ikusiko horretan OLP-ak, gure estrateji-helburua ezaguna baita: palestinar erresuma herriko bat lortzea..."

5.—"Jordaniar abertzale indar guztiak batera jokatzea, jordaniar-palestinarrak buruzagitzak bakar baten alde lanez gaitzen du OLP-ak; denon helburutzat hau hartzen dugarik: iskitu-burruren bitartez, palestinar nazioari dagokien erresuma lortzea..."

9.—"Programa edo jarraipide horren arabera palestinar nazio-batasuna sendotzeko egiten du burruka OLP-ak, bere helburu abertzale eta naziotarrak bete arte..."

Sei puntu horien mamiak eta itxurak zalantza ateka gutxi uzten dute Arafat-en OLP-aren nahiaz: aberri, abertzale, nazio, erresuma askatu, lurraldea libratu, nazio-buruzagitzak bakarra...

Hamar garren pntuan, denen artean taktika batua prestatu beharra aipatzen da, ha utatuko 14 buruzagiek taktika hori borobildu eta namituko dutela esanez.



"Palestinarraren nazio-estabideen errespetua eta obrakuntza"

Seigarren puntuak arabitar guztiaren batu-beharra aipatzen du; eta zazpigarrenak, bide beretik, palestinarren askatasuna, arabitar guztiaren arteko elkartasunari buruz egingo den lehenengo pausua dela azaltzen.

Zortzigarren puntuak, azkenekotz, hauxe dio hitzez hitz: "Mundu guztioko sozialista herriekin eta liberazio-mugimenduekin azkarkiagoko elkarteko ari da burruka OLP-a, baita sion-dar eta imperialista azpikeria guztiak salatzeko eta hondatzeko ere".

Aldizkari guztiak, horrela, palestinarren garaitzaren handi bat sumatu nste dute erabaki horietan; eta funtsean dituen abertzale batasun berria batea ere. Denek urte dute palestinarrek gaur inoz baino hurbilago daudela beren helburutik.

Azken ohar bat Agirian irakurtzen diren hitzez buruz. Hamar puntu labur horietan (375 bat hitz frantseseko itzulpenean) hona hemen azterketak ematen duen hitz-kondua:

"palestinarrak" ...	11 aldiz
"nazio" ...	8 aldiz
"abertzale" ...	4 aldiz
"palestinarrak herria" ...	3 aldiz
"palestinarrak lurraldea" ...	2 aldiz
"palestinarrak erresuma" ...	2 aldiz
"nazio-buruzagitzak" ...	2 aldiz
"nazio-askatasuna" ...	0 aldiz
"Mahomet" ...	0 aldiz
"Marx" ...	0 aldiz
"Mao" ...	0 aldiz
"Reich" ...	0 aldiz
"klase-batasuna" ...	0 aldiz
"burgesia" ...	0 aldiz

Baina behar bada palestinarrek burgesak dira, eta Arafat CIAren ordezkaria. Norik daki?

LARRESORO

BLAS DE LEZO

ETXE ONTAN D. AUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK ETA EDARI GUZTIETATIK

Blas de Lezo Kalea, 6
Urrutizkifia: 41 20 65

DONOSTIA

ZERUKO ARGIA

SALTZEN DA:

ELGOIBAR
M. Gorostiza

EIBAR

Angera
Markina
Iruñea
Eguren
Gisasola
Barela
Alday
Aranburu
Estanko, 11
Isasi
Simon
Amana
Uraui
Urizar
Siglo XX

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Jenerat bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, eta nora jo jakin bear du baserriko burutsuak, Baserriko aragi pilak; gañera esne putzuak, Oiek guztiak berekin ditu Fanderia'ko pantauak.

FANDERIA

ERRENTERI



aristegui hermanos

ZORUAK ETA ESTALKIAK, PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR, GARBITOKI ETA ITURKINTZA GAIK.

ERAKUSTOKIA: FUENTERRABIA, 19 - URRUT. 11459
DONOSTIA